

noaua



SAGARDO ETA BABARRUN EKOIZLEAK IZANGO DIRA SANTOMAS AZOKAKO PROTAGONISTA NAGUSIAK

Igande honetan ospatuko da eta eskaintza oparoa izango da. Taloak, gaztainak eta gozoak ez dira faltako / 18

ARGAZKIA: NOAUA




NOAUA

Agerialden sorkuntza foto-voltaikoko instalazio bat ipiniko dute / 09



NOAUA

Aldarrikapenek eta jai giroak bat egin zuten Euskararen Egunean / 14



IOSU OLABARRIA

Axi Aranguren: "Oihalean gora igotzen ikastea asko kostatu zitzaidan" / 22



NOAUA

Igandean, 'Sabelhortz kapitainaren abenturak' Sutegin ikusgai / 26

San Tomas eguna

Abenduaren
igande goizez **15ean**

Babarrun eta sagardo **lehiaketa**

11:30 AZOKAREN IREKIERA eta UMEENTZAKO APAINGARRI tailerra
(ahal bada pinaburu bat ekarri)

12:00 USURBILGO **BABARRUN ETA SAGARDO LEHIAKETA**

13:30 SARI BANAKETA

Sagardo dastaketa, **azoka**, taloak, **gaztain erreak**, gozogintza postuak
eta **OSTOLAZA eta PUJANA** trikitilariak zuzuenean



noqua



Usurbilgo Ustala

José María Larburu
Garraiatzailea



LARBURU

gruarekin ere egiten dugu lan

Garraioak

Larzusta z/g. AGINAGA  943 36 17 35 • 651 703 237

Emakumeen artean jarduera fisikoa sustatzen

Elkarrekin Egunean berrogeita hamar bat emakume bildu ziren azaroaren 30ean Oiaro kiroldegian, entrenamendu funtzionala egin eta kirol nutrizioari buruzko aholkuak jaso zein hamaiketako egi-teko.

Goizeko hamarretan entrenamendu funtzionalarekin hasi zuten eguna kiroldegiko tatamian, MOOV gimnasioko monitorean laguntzarekin. Beroketa saioa eta gorputz ariketa dezente egin zituzten. Ordubete pasatxoko saioa izan

zen eta amaitu bezain pronto, Andoni Zubeldia herritar nutrizionistarekin bildu ziren.

Nutrizionistak azalpenak eta gomendioak eman zizkien emakumeen bizitzako etapa bakoitzean ulertzeko zeri eman behar dioten garrantzia. Nerabezaroan zein hilekoaren zikloaren barnean zeri erreparatu eta sintomatologia hobetzeko aholkuak jaso zituzten, bai eta haurdunaldi zein edoskitzean ere. Jakina, menopausia ere hizpide izan zuten.



'Elkarrekin Egunean' ekimenarekin bat egin zuten herritarrak.

Garbigune mugikorra, Zubietan

Abenduaren 12tik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Abenduaren 19an osteguna, garbigune mugikorra Txokoaldera eramango dute.

Beste astekari bat, urtea bukatu aurretik

NOAUA! bakarra baino ez zaigu geratzen urte amaierako ohiko etenaldirako; abenduaren 20koa. Urte amaierako ekitaldien berri eman nahi baduzue, abenduaren 19a baino lehen helarazi horren berri, ohiko bideotatik: erredakzio@noaua.eu / 943 360 321 / Bordaberri, 3 behea.

Helduentzako solasaldi filosofikoa, aurrerago

Filosofatzea helburu duen helduei zuzenduriko saioa antolatua zuten Jakinmin Elkarrekin eta Usurbilgo Oinherri Herri Hezitzailea Elkarrekin ostiral honetarako. Deitzaileek ordea, hitzordu hau datorren urtera atzeratzea erabaki dute. Aurrerago jakinaraziko dute, saio honen data berria.

'Goazen kalera' ibilaldi osasuntsua, Zubietan

Asteartero, Usurbilgo herri eta auzoetan paseotxo osasuntsuak egiteko aukera dago. Amaieran, Lanbide Heziketako ikasleek eginiko hamaiketako banatzen dute parte hartzaileen artean. Abenduaren 17an Zubietan egingo da. 10:30ean batuko dira, bertako frontoian.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eu

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Aitaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eu
Banatzailleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE ZAPIRAIN

Zeruak eta lurrak (4)

Putzuak lehor-lehor zeuden eguerdirako. Eguzki printzek goizeko hodei grisak deuseztu zituzten, eta Jainkoarren, ez zuen bezperako berorik egin. Horrela esan zuten batek baino gehiagok, behintzat.

Herriko plazan, jende andana bildu zen hamaikak bueltarako. Palko dotorea muntatu zuten brigadakoek. Loreak, ohialak, eserleku kuxindunak, graduak merezi zuena, alajaina. Hantxe hartu zuten lekua Saroetik etorritakoek, eta komeriari ondo jartzeko. Apaizari ez zion graziarik egin palkotik kanpo geratzeak, batez ere, alaba zaharrenaren maitaleari tokia egin behar baitzizaion han goian. Hura, ordea, beranduago azalduko zen aitzakia-ekin eskusatu zen, ondoezik sentitzen omen zen. Eguraldi aldaketa edo klimaren beste ez-dakit-zer, esan zion andre-gaiari. Ohean utzi zuen azalpen gehiago eskatu gabe.

Pilotalekua lehertzekotan zegoen, ez zen jostorraz bakar bat bera ere kabitzen. Denek egon nahi zuten han, eta etxeko lanak erdizka utzi zituenik ere bazen bertan. Urteko hitzordua izan ohi zen. Txistu hotsak eman zion hasiera ekitaldiari. Dantzariak, dotore, frontoiko zola hartu zuten. Denek irribarre zabala aurpegian, jauzika hasi ziren berehalakoan, eta txalo zaparra eta ujuek dantza bakoitzaren amaiera iragartzen zuten.

Alaba zaharrena deseroso zegoen. Haren ondoko eserlekuak hutsik jarraitzen zuen. Nobioak kalabazak eman ote zizkion? Ez ote zen kapitalera joango ezkutuan? Dantzari ezin goza zebilen halako burutazio eta fantasiekin. Gai ikusten zuen, oso gai, eta okerrera zera zen: markesaren aurrean defendatuko zuela maitalea.

Alaba gazteena, ordea, poztarren zegoen. Dantzarien trebeziarekin txundituta, gustura jaiki eta jarriko zen haien artean. Ez zen dekorosoa, baina. Agian, pentsatu zuen, dantzari horietako bati eskatu beharko diot erakuts nazan dantzatzen. Eta dantzari finenaren arrasto atzetik jarri zituen begiak, harik eta Troiako alaba gazteenaren arintasunak harrapatu zuen arte. Begiak eta ahoa zabal-zabalik utzi zizkion. Ile adatsak ere gorputzarekin batera dantzatzen ziren, eta irribarre hain zitzaion benetakoa, kutsagarria zitzaion. Bazirudien bera ari zela dantzan kuxindun aulkian eserita egonagatik.

Angelusaren ordua iritsi zen eguerdiarekin. Apaiza bere mailakoa ez zen eserlekutik zutitu, eta plaza bere egin zuen. Latina buruz ikasita, hitz uler-

"SARI BANAKETAREKIN HELDU ZEN ISKANBILA"

tezinak besterik ez zituzten errepikatzen bertaratuek. Baina horixe zen fedea, ulertezinean sinestea, konfiantzaren gehieneko maila. Plazako arima bakoitzak zuen zertan edo norengan izan fedea.

Kirolarien ikuskizunarekin gozatu zuen, gehienbat, Sarroeko markesak. Hori gustatzen zitzaion. Gizon gazteen indarra eta kemena. Haren gaztaroa gogorarazten zion plazako gazte lerdunen jardunak. Harria sorbaldaraino igo, aizkorarekin enborra birrindu, lasterka zama soinean... Markesa ez zen sekula horrela ibili, baina bere irudimenean, guztiak gaintzeko beste zela sinetsita zegoen. Okasiorako traje dotoreak ez zuen lagunduko, ordea, eta beste batean beharko zuen erronkak.

Sari banaketarekin heldu zen iskanbila. Hainbat herritarren ekimenez, abertzale, gorri eta anarkisten sotoak miaka jardun ziren. Horrelako ikuskizunak beti izan ohi dira aproposak titularrak eskuratzeko, eta baten baino gehiagoren burutik pasatuko zen markesaren aurkako atentatu bat. Oraindik bezperako susmoak gori-gori zeuden. Bada, bost morroi plaza erdian belaunikatu zituzten zerbait egiteko asmoa zutela leporatuta. Hura zorigaitza haien familien aurpegian entzun zutenean: "Dinamitarekin harrapatu ditugu!". Markesak jarriko zien zegokien zigorra.

Boluntariotzari buruzko prestakuntza saioa

Abenduaren 27rako antolatu du Asebier gaixotasun arraroen elkarteak, 11:00-14:00 artean Potxoenean. Boluntarioak izan nahi dutenei nahiz boluntariotzaren interesa dutenei zuzenduriko saioa izango da. Izena doan eman ahalko da, info@asebier.org helbidean edo <https://forms.gle/Yofm38vQ8NLkkMvb7> helbideko galdetegia osatuta.

Herrikideak Gipuzkoako kirolarien sariketarako hautagaien artean

Gipuzkoako Kirolaren gala abenduaren 20an ospatuko da Irungo Ficoban. Besteak beste, Gipuzkoarren Kirola Herritarren Saria banatuko dute eta hori herritarrek erabakiko dute. Abenduaren 15era arteko epea dago bozkatzeko. Horretarako, gipuzkoa.eus atarian klikatu beharko da eta bertan, "Gipuzkoa Kirolak Saria 2024" atala bilatu. "Lagundu iezaguzu aurten Gipuzkoako kirolaren balioak hobekien ordezkatu dituen kirolaria edo kirol taldea aurkitzen", egin dute gonbita. Hautagaien artean herrikiderik bada. Batetik, Donostiako Bera Bera eskubaloi taldea eta bertan, jokalarien artean, Kalezar-ko Esther Arrojeria eta entrenatzaile taldean Urdaigako Jon Begiristain daude. Bestetik, Parisko Paralinpiar Jokoetan hainbat diploma irabazitako Nahia Zudaire Borrezo Zubietako igerilaria.



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.

"Etxe bat norberarena", hitzez eta doinuz eraikia

Asteazkeneko "Abentura zirrargarria" ipuin kontaketa musikatuaren ondotik, urteko azken ekintzak iragarri dituzte Sutegi udal liburutegian.

Abenduak 13, ostirala

• 19:00 "Etxe bat, norberarena" Yolanda Arrieta eta Peru Galbete herrikideen solasaldi poetiko musikatua.
• Zehaztasunak: "Yolanda Arrietak bere azken lanaren irakurketa-solasaldia proposatuko digu. Habiaren babesa. Bake operatzailea. Aukerako ohikotasuna. Nondik-abiatu berri bat. Nora-itzuli atsegin bat. Ezeren faltarik ez. Dena bertan. Peru Galbetek musikaz eta kantuz lagunduko dio".

Abenduak 23, astelehena

• 11:30 Roald Dahlen "Sorginak" liburua izango dute min-

tzagai (11 urtetik gorakoentzat).

• Zehaztasunak: "Irakurle, seguru asko oso pertsona serio eta formala zara eta ez duzu sorginengan sinesten. 'Utikan, asmazio horiek!', esaten duzu serio asko. Sorginen kontu horiek guztiak ez dira txoriburuen gorabeherak besterik. Bada, sentitzen dugu esan beharra, baina egon badaude. Irakurri besterik ez duzu, bestela, Roald Dahl-en liburu hunkigarri hau: behar pasatuko zara zure irribarre ironiko horretatik sorpresara, eta sorpresatik gorputz guztia dardarizoka



Yolanda Arrietak eta Peru Galbetek "Etxe bat, norberarena" ikuskizuna eskainiko dute ostiral honetan Sutegin. IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA.

jarriko dizun trantze urdurira. Sorginengan ez duzula sinesten? Bada, beldurti baten aitzakia da hori, liburu hau irakurtzera ausartzen ez den kakajario batena".

Oharra: Azken saio honetan parte hartu nahi dutenentzat

liburuak eskuragarri Sutegin bertan.

Ekitaldiotarako izen-ematea: Aurrez, Sutegi udal liburutegian.

Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

'Ama ta asunak' zikloa Emakumeon Etxean

Abenduaren 12tik 19ra

June Baonza Pagaldai artista-ren 'Ama ta asunak' proiektuak amatasunaren ideala deserai ki nahi du, amatasunaren praktika bizigarriagoa egiteko erreferente eta diskurtso ugari eskaintzearekin batera.

- Erakusketa: 'Ama ta asunak'.
- Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00. Astearte eta ostegunetan, 17:00-20:00 artean ere bai.
- Abenduak 12, 18:00 Irekiera eta egilearekin solasaldia.

• Abenduak 19, 18:00 Hitzaldia: "Amatasunak, beste amatasunak eta ahaidetasun berriak", Parean elkartearen eta Miren Arangurenaren eskutik.

Zerbitzuak, Emakumeon Etxean

Abenduak 16, astelehena
• 17:00-19:00 Sexu-aholkularitza zerbitzua.

Informazio gehiago:

- 943 371 112.
- emakumeonetxea@usurbil.eus



Abenduaren 1ean, Beate Egizabalek bakarrizketa berria aurkeztu zuen Zubietan.

Gregoriak Zubietako eliza bete zuen

Beate Egizabal umoregileak 'Gregoria' izeneko bakarrizketa eskaini zuen Zubietako elizan. Umore kolpeak eta ikuspegi feminista uztartu zituen bere saio berrian.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL



2025eko udal aurrekontuak azaroaren 28ko osoko bilkuran hasieraz bozkatu zituzten unea.

Inoizko udal aurrekontu handienak 2025erako

Udalbatzak 15.135.194 euroko udal aurrekontuak onartu zituen hasieraz eta gehiengo osoz azaroaren 28ko osoko bilkuran, inoizko handienak. Ezarriak dituzten misioetarako, legealdi planera edota herri zein auzo bizigarriak sustatzera bideratuko dituzte diru partidak.

Usurbilek hasieraz onartu ditu 2025erako udal aurrekontu historikoak. Izan ere, inoizko handienak dira, iaz baino 2.120.000 euro gehiagokoak, diru-sarrerak ere hein berean hazi direlako. "Diru-sarreraren igoera, nagusiki, hiru arrazoi-erengatik izan da. Batetik, Michelin ondoko Zapategi eremuaren garapen industriaren bidez, 861.189 euro jasoko ditu udalak, datorren urtean. Bestetik, aldundiaren Udalak Finantzatzeko Foru

Funtsetik 5.703.651 euro jasoko dira, 2024an baino 465.000 euro gehiago. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Gauzatu Energia programako maileguaren bidez, 300.000 euro jasoko dira: kaxkoko argiteria guztia LED-era pasatzeko baliatuko da". Ondorioz, "azken urteotan faseka aritu gara, eta datorren urtean jauzi kualitatibo bat eman nahi dugu eraginkortasun energetikoaren alorrean", nabarmendu du udal-gobernuak. Neurri horrek

"inbertsioaren ingurumen inpaktuaz gain, inpaktu ekonomikoa ere izango du argiteria publikoaren gastuan",

"DATORREN URTEAN JAUZI KUALITATIBO BAT EMAN NAHI DUGU ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAN"

Udaletik aditzera eman dute-nez.

Gizartearen egungo erronkei erantzutea dute xede udal aurrekontuok, "ezarritako misioetara gerturatu, Legealdiko Planari bultzada eman eta herri-auzo bizigarriak" sustatzeko. Hasieraz eta gehiengo osoz onartu zituen udalbatzak azaroaren 28ko osoko bilkuran. EHBilduk alde bozkatu zuen, abstentziora jo zuen PSE-EEK eta EAJk aurka bozkatu zuen.

EAJk "udal haur eskola Par-tzuergora sartuta aurreztuko litzatekeen diru kopuru bat kalkulatu eta horrekin Zubietako bidegorriaren proiektua sustatzea" eskatzen zuen emendakina erabazte bidez. Udal-gobernuaren ustez, haur eskolarena ez da aurrekontuen eztabaidan sartzeko gaia: ez zuen emendakina onartu, eta EAJk aurrekontuen aurka bozkatu zuen.

PSEK bi emendakin aurkeztu zituen, bat asfaltatze kanpaina indartzeko, onartua duena udal gobernu taldeak. Baina abstentziora jo zuen, "udalak eskatu berri duen maileguak zalantzak sortzen dizkiolako eta udal-zergak eta tasak izoztearen aldekoa delako".

Prezioen garestitzea

Udaletik gogorarazi dutenez, KPIaren %2,6ko igoera orokorra onartua dute ordenantza fiskaletan, "prezioen garestitzeak udalari ere zuzenean eragiten diolako. Zenbait tasatan, dena den, igoera handiagoa izango da. Hondakinen kasuan, praktika okerrak zigortzea erabaki da, eta horrek %15eko igoera izango du diru-bilketan: guztira, 680.000 euro jasotzea aurreikusten da. Uraren kasuan, iaz hasi zen

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Kima
MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Patxi
bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Zaintza ekosistemaren garapenari lotutako hiru egitasmo abiaraziko dituzte 2025ean.

→ udala arazketagatik ko-bratzen, eta aurreko %20ko igoera izango du: guztira, 521.000 euro jasotzea aurreikusten da. Etxebizitza hutsei %150eko errenergia ezarriko zaie OHZ Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, alokairura ateratzea bultzatzeko neurri gisa: iaz 25.000 euro jasotzea aurreikusitzen, eta 2025ean, errenergia handituta, 82.000 euro". Zergan igoera orokorraren aurrean, hobariaren sistemak indarrean segiko du. "Duela bizpahiru urte, hobariak eskuratzeko irizpideak zabaldu zituzten, eta gaur egun 200 familia inguru dira hobaridunak".

Misioetara

Udal aurrekontuok Udalen ezarritako misioetara gerturatzeko baliatu nahi dituzte. Zaintzarako 390.200 euro bideratuko dituzte, hiru egitasmo abiarazteko. "Batetik, auzo-zaintza proiektu pilotu bat jarriko da martxan, Zabal-

duz kooperatibarekin, egoera hauskorrean dauden herri-koen integrazio komunitarioa sustatzeko. Bestetik, Matiarekin elkarlanean, bizi osorako etxebizitzak eskainiko dira. Halako sei unitate eraikitzen ari dira Egurtzean, eta udalak seitek lau eskainiko ditu". Horrez gain, 180.000 euro bideratu asmo dituzte etxeko zerbitzua eraldatzera.

Trantsizio ekosozialera 438.000 euro bideratuko dituzte, tartean, 300.000 euro herriaren %95ean LED argiteria ezartzera. Horrez gain, "energia aurrezteko bestelako

inbertsioetarako 30.000 euro gordeko dira; Usurbil 0.0. programarako 30.000 euro bideratuko dira; fosa septikoak eraikitzeke 10.000 euroko dirulaguntza berria, auto konpartitu berrirako 10.000 euro; 2030 ingurumen agendarako 25.000 euro; herriguneko mugikortasuna berrantolatzeko proiektua idazteko 18.000 euro gordeko dira. Azkenik, trantsizio ekosozialaren misioa finkatzeko parte-hartze prozesuan proposatutako neurriak garatzeko 15.000 euro gordeko dira, zehazki, bertako ekoizpena sustatzeko neurrietarako".

**KPI-AREN
%2'6KO IGOERA
OROKORRA
ONARTU DA
ORDENANTZA
FISKALETAN**

**2025EAN
ONTZIRALEKU BAT
EGIN NAHI DA
AGINAGAN,
LUR SAIL BAT
EROSITA**

"Udalagertu" izeneko erronkara 625.000 euro bideratuko dituzte. Horietatik 226.000 euro udalaren digitalizaziorako gorde dituzte. "Udaletxeko teiltua konpondu eta espazioa berrantolatzeko 180.000 euro bideratu dira 2024an, eta 2025ean beste urrats bat egingo da: Barrenkaleko lokala egokituko da, Gizarte Zerbitzuen eta Udalzaingoaren egoitza izan dadin. Horrek udaletxean espazioa irabaztea eta arreta hobetzea ahalbidetuko du: 384.000 euro bideratuko dira". Azkenik, 184.000 euro bideratuko dira 650 Usurbil Bizi herri egitas-mora. "2025ean Errioren Usurbil lerroa landu nahi da, Aginagan ontziralera bat eraikitza, errioren sarbide publikoa ahalbidetuko duena, lur-sail bat erosita".

Auzo eta herrietara

Legealdi Planeko hainbat egitasmoetara ere bideratuko dira partida gehiago; 2,5 milioi euro Elkargunea eraikitzeke mailegu baten bidez edota 200.000 euro haur eskola berri-tertera. 850.000 euro bideratuko dira Kale Nagusia eta Etxealdia lotuko dituen igogailurako. Udal dirulaguntzak aipatuta, 1.184.285 euro erabiliko dira denetariko herri egitasmoak babesteko.

Azkenik, herri eta auzo bizigarriak sustatzeko hainbat partida bideratuko dituzte; besteak beste, Aranerrekako zubi berria egin eta Haraneko bidea konpontzera, Santueneko Auzo Plana garatu eta urbanizazio proiektua idazteke, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunearen garapenera, Txokoaldeko zubia berri-tertera, Atxegaldeko asfaltatze lanetara...

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskalera dekoratiboak, solairuak...
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867

txirriStra
TABERNA
• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.



Txokoaldeko zubia birgaitzeko uztailean hartutako erabakia berretsi zuen udalbatzak azken osoko bilkuran.

Orotariko gaiak landu zituen udalbatzarrak

Haraneko musika taldeen entsegu saioetarako lokalak, Oiardo kiroldegiko zenbait zerbitzuen esleipenak edota Txokoaldeko zubiaren birgaitzea ere hizpide izan zuten udal ordezkariak azaroa amaierako osoko bilkuran. Lerrootan dituzue gai hauei guztiei buruzko xehetasunak.

Usurbil sorkuntzaren eta sortzaileen herria denikezin ukatu. Musikagintzaren erakusleio argia izaten dira Haranen kokaturiko entsegu saioetarako lokalak. Guneon erabilera eta funtzionamendua arautzeko udal ordenantza onartu zuen aho batez udalbatzak azaroaren 28ko osoko bilkuran. "Ordenantzaren xedea, erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak zein diren zehaztea eta instalazioak erabiltzeko baldintzak definitzea da", Usurbilgo Udalaren esanetan. Ordenantzak berak zehazten duen moduan, "Haranen 2 musika entsegu gela intsonorizatu daude". Aurreantzean, "Usurbilgo Udalak urtero, irailean, gela bakoitzean 8 talderi baimenduko dio erabilera. Guztira, Haraneko entsegu gelak erabiltzeko bai-

mena 16 taldek izango dute". Talde kopurua handiagoa balitz, puntuazio sistema baten bidez erabakiko litzateke nortzuk erabili ditzaketen lokal hauek. Hortik kanpo geratutako taldeekin itxaron zerrenda osatuko litzateke.

Aipatu moduan, udal ordenantza hau hasieraz eta aho batez onartu zuen udalbatzak azaroaren 28ko osoko bilkuran. Erabaki honen iragarkia kaleratu ostean, 30 laneguneko

HARANeko ENTSEGU-GELAK ERABILTZEKO BAIMENA 16 TALDEK IZANGO DUTE

epealdia zabalduko du Udalak kontsultak egin edota "hala badagokio, bidezko erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ditzaten". Tarte horretan, halakorik aurkeztuko ez balitz, ordenantza hau behin betiko onartutzat joko da.

Oiardo esleipenak

Bestalde, "prozedura ireki eta ohikoaren bitartez, Usurbilgo Oiardo kiroldegian kirol jarduera fisikoa eta ur sorospen

OIARDOKO KIROL JARDUERA FISIKOA ZEIN UR SOROSPEN ZERBITZUA ATHLON SINTAGMIA SL-RI ESLEITU ZAIO

zerbitzua kontratatzeko espedienteari onespina ematea" onartu zuen aho batez udalbatzak uztailearen 24ko osoko bilkuran. Horretarako, "jarduteko eta esleipenerako oinarri bezala erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehazten Orriei eta Preskripzio Teknikoen orriei onespina ematea" ere aho batez babestu zuten udal ordezkariak. Prozedura horren baitan, irailaren 13ra arte finkatutako epealdiaren baitan hiru eskaintza aurkeztu ziren esleipen deialdi horretara. Puntu gehien jaso eta beharrezko bermea eta dokumentazioa aurkeztu ostean, Athlon Sintagma SL-ri esleitzea erabaki zuen udalbatzak aho batez azken osoko bilkuran, Oiardo kirol jarduera fisikoa eta ur sorospen zerbitzua. Kontratazio honen iraupena, gehienez, bost urtekoa izango da.

Txokoaldeko zubia

Aginagako trenbide bikoizketaren eta tunel berriaren erakuntza proiektuaren harira, Usurbilgo Udalak eta Euskal Trenbide Sareak (ETS) erdieztia duten hitzarmenaren testuinguruan kokatua dago Txokoaldeko zubiaren konponketa lana. Txokoaldeko Altzonazko zubiaren konponketa lanak gauzatzeko urrats berri bat eman zuen udalbatzak, iragan uztailearen 24ko osoko bilkuran. Izan ere, obra horiei begira, "Usurbilgo udalerrian Txokoaldeko Altzonaz zubia legezatzeko eta birgaitzeko itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko emakidaren baldintza orokorren plegua (PCG) zein baldintza partikularren eta preskripzioen plegua (PCPP)" onartu zituen aho batez. Aldiz, ebazpen hau berriz bozkatu eta onartzea eskatu zaio Udalari. "Obrak ezin hasi kontzesio hau eman arte", alkateak azaroaren 28ko osoko bilkuran gogorarazi zuenez. Horregatik, udalbatzak berriz onartu zuen aho batez aipatu uztaileko erabaki hura.



Agerialdeko teilatuan kokatuko dute sorkuntza fotovoltaikorako instalakuntza.

Agerialdeko teilatua, energia berrien iturri

Udarregi ikastolaren HH eta LH-ko eraikinaren teilatua energia berriztagarrien iturri izango da etorkizunean. Izan ere, udalbatzak sorkuntza fotovoltaikorako instalakuntza bertan ezartzea baimendu zuen azkeneko osoko bilkuran.

Udarregi ikastolaren Agerialdeko teilatua energia berriztagarrien iturri izango da etorkizunean. Izan ere, Sortalde, Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitateari HH eta LH zikloen eraikineko gainaren "erabilera lagatzeko administrazio-emakida esleitzea" onartu zuen udalbatzak azaroaren 28ko osoko bilkuran. Hogeitun urteko iraupena izango du esleipen horrek. Baimen horren baitan, erabilera pribatiborako "sorkuntza fotovoltaikoko instalazio bat ezartzea" ahalbidetuko zaio Sortalderi, 100 kWkoa. Instalakuntza horrek "% 100eko energia berriztagarria sortuko du". Sortutako horretatik %20a Udalak jasoko du, %80a Sortalde eskola-aldian. Eskolarik gabeko egunetan, %90a Sortalde eta %10a Udalak.

Saiakerak aurretik

Gogoan izan, eguzki-plaka hauek jartzea ahalbidetuko duen erabakiaren harira, Usurbilgo Udala aipatu komunitate energetikoko bazkide laguntzaile da, hala izatea erabaki zuen apirilaren 11ko osoko bilkuran. Izan ere, "Usurbilgo Udalak garrantzitsutzat jotzen du trantsizio energetikoarekin lotutako ingurumen-eta gizarte-ekimenak eta horregatik sustatu nahi du Usurbilen tokiko energia-komunitatea egotea". Azken hilabeteotan, "Sortalde Energia Komunitatea, instalazio fotovoltaiko bat abian jartzeko lanetan jardun da Zubietako pilotalekuan eta Atalluko gune industrialeko teilatuan. Ezinezkoa izan da teilatuen jabeekin hitzarmena adostea. Gauzak horrela, Agerialdeko

eraikineko teilatuaren baldintzak ikusita, Sortalderi lagapena egiteko aukera ikusi da".

Erronkak

Egitasmo hau gauzatzeko bi aldeek, Udalak eta Sortalde ikusitako izenpetuko duten hitzarmenaren helburuak zehaztuak daude. "Udalaren aldetik, hitzarmenaren helburua da bere instalazioetan sorkuntza fotovoltaikoko instalazio bat izatea, energia elektrikoaren

"TEILATUAREN BALDINTZAK IKUSITA, SORTALDERI LAGAPENA EGITEKO AUKERA IKUSI DA"

horniduraren kostua murrizteko, azken kontsumitzailea ere den aldetik".

Sortalderen aldetik, "sortze-instalazioaren jabea den aldetik, energia sortzeko subjektu gisa jardun ahal izatea da, instalazio horri lotutako pertsonen autokontsumo kolektiboaren bidez aurrezkiak ahalbidetuz". Sortalderen helburu nagusia da hain zuzen, "bere kideei eta garatzen den herriari ingurumen-onurak ematea, eta Usurbilgo Udalarantz eta udalerriko etxebizitza edo zerbitzuentzat energia berriztagarriaren ekoizpena eta kontsumoa kolektibizatzea, udalerriarren energia-eragin kortasuna hobetzeko eta atmosferara egiten diren CO2 isurketak murrizteko, bai eta energia elektrikoaren kontsumoari dagozkion kostuak ahal den neurrian murrizteko ere".

Instalakuntza hau martxan jarri ostean, "sortutako energia, autokontsumitutako energia eta sarera isuritako energia ezagutu ahal izango dira ordu-ordu". Bestalde, "instalazio fotovoltaikoak sortutako energiak bere izaerari dagozkion zenbait ezaugarri izango ditu, hala nola, eguzki-erradiazioaren arabera, eguneko orduetan eta urte-sasoietan aldizkakotasuna eta kantitatea aldatzea. Horrek ez du inoiz hornidura elektrikoa etengo, kontsumo-instalazioa, aldi berean, hornidura-sarera konektatuta" egongo baita.

Urteko azken saioa, lehenago
Ate joka ditugun ospakizun egunak tarteko, urterto moduan aurreratu egingo dute hilabete honi dagokion udalbatzaren osoko bilkura. Abenduaren 19an izango da, baina 19:00etan, ez 18:00etan, aurretik indarkeria matxistaren biktimen arretarako eta erreparazioarako erakundearen arteko koordinazioarako protokoloa eguneratzeko formazio saioa izango dute udal ordezkariak.



Hurbilagoren gabonetako etxolek herria argitu zuten iaz.

Gabon eta elkartasun giroan murgiltzear

Postontzi eta apaingarriak jartzeko baliatuko dira egunok. Santuenean gabonetako azoka solidarioa egingo dute.

Urte amaierako ospakizunak bueltan dira berriz. Gabonetan murgiltzeko giroa betean jada udalerrri hau ere. Xehetasunak astebete barru, abenduaren 20an argitaratuko dugun gabonetako gehigarrian kaleratuko ditugun arren, bada eskuarte duzuen urteko azkenaurreko aldizkari honetan aurreratu beharreko zenbait kontu, datozen festa egunei dagokienean. Izan ere, herria itxuraldatzen ikusiko dugu egunotan, oraingo honetan, gainera, ez soilik Usurbilgo erdigunea, baita udalerrri hau osatzen duten herri eta

auzoak ere. Hortxe aurtengo berrikuntzetako bat. Usurbilgo Udalak aurreratu duenez hain zuzen, "apaingarri bereziak jarriko dira herri-auzoetan, gabon giroa haietan ere zabaltzeko. Jokin Eizagirre herritarrak egin ditu, eta ondo bidean, guztiak ere egunotan jarriko dira".

Postontziak jartzear

Horrekin batera, gogoan izan, aurreko urteetan, Mikel Laboa plazan kokatu izan dituzte Mari Domingi eta Olentzero. Bi pertsonaia estimatu hauei lotutako beste ohar bat ere

bada. Adi, abenduaren 24an egingo zaie harrera Santuenean, Kalezarren eta Usurbilen (bezperan, Aginagan). Izango da ordurako haiei gurarienez zerrenda idatzi nahiko dionik. Haietzako segidan datorren ohar hau; eskutitzak jaso eta bie bidaltzeko postontziak aste honen amaieran jartzekoak dira hainbat tokietan, guneotan hain zuzen; Udarregi ikastolan, Aginagako eta Zubietako eskola txikietan, Santueneko eta Aginagako zaharren egoitzetan, liburutegian, ludotekan, Potxoenean eta Txokoargin.

**AURTEN,
"APAINGARRI
BEREZIAK JARRIKO
DIRA HERRI-
AUZOETAN, GABON
GIROA HAIETAN
ERE ZABALTZEKO"**

Elkartasun txokoa Santuenean

Hamaika ekimen antolatu dira herrian hurrengo asteotan; haien artean, gabon giroko azoka larunbatean Santueneko frontoian, 16:00-20:00 artean. Haurrentzako tailerrak eskaini edota gabonetako zuhaitzaren argiak pizteko baliatuko duten artisautza eta jakien postuen artean, elkartasunerako txokoa egokituko dute. Izan ere, gogoan izango duzue, urria amaieran Valentzia izandako hondamendian kalteturikoentzako laguntza biltzen aritu ziren azaroa hasieran Santueneko frontoi ondoko lokalean. Elkartasunak gainezka egin zuen. "Herritarren aldetik erantzun bikaina lortu genuen eta bildutako ia guztia bidaltzea lortu dugu, arropa izan ezik (orain arte ez dute eskatu)". Ondorioz, gabonetako azoka horretan SOS Valentzia izeneko postua jarriko dute, "jendeak elkartasunez emandako beroki guztiekin, dirua biltzeko eta INTERAMPAIPORTA elkarteari emateko, eta horrela, Paiportako ikastetxei diruz laguntzeko. Gure ustez, dohaintzan emandakoaren helburua ez zen hori, baina aukera hau baliatu nahiko genuke dirua bildu eta hara bidaltzeko behar duten eran erabil dezaten".

Postu hau tarteko, nahiz azokak izango dituen gainerako osagaiak kontuan izanda, larunbatean Santuenean joateko deia egin dute bertako kultur elkartetik. "Gabonetako azokaz gozatzera gonbidatzen zaitugu; abenduaren 14ko arratsaldean Santuenean eta SOS Valentzia postua bisitatzen. Zuzeneko musika eta sorpresa gehiago izango dira!", aurreratu dute antolatzaileek.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
IT-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Parti
Parti
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarenea 2, 943 36 55 81

ZENDOIA
ENEAtaberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



GABONETARAKO BEREZITASUNAK!

Abenduak 9tik 20ra

FRESKOAK:

Baserriko txahal azpizuna
Entrekota
Baserriko txahal txuleta
Behi PREMIUM azpizuna
Behi PREMIUM txuleta
Antxume
Arkume
Txerrikume
Iparraldeko hegaztiak



PRESTATUAK:

Etxeko frijitu aukera zabala
Arrai pastela
Foie xerratxoak
Txahal masaiak saltsan
Arkumea tenperatura baxuan eginda
Txerrikumea tenperatura baxuan eginda
Panetone Siziliarra...
Iberiko aukera zabalak...



ESKAERAK: telefonoz 943 36 55 81
677 64 27 76 edo email: otargoxo@gmail.com

Otar-Goxo

E l i k a g a i a k



USURBIL 58 Dokumentala

Altxor txiki bat, opari handi bat

2023ko udazkenean, Usurbilgo irudi zirraragarri batzuk topatu genituen Euskadiko Filategian. Juan Illarramendik grabatu zituen 1958 eta 1960 urteen artean. Orain arte ikusi gabeak. Sutegiko estreinaldi arrakastatsuen ondoren, dokumentala eskuragarri duzue.

Dokumentala, salgai

'Usurbil 58' argitalpena DVD batekin eta USB memoria batekin osatzen da.

Batean zein bestean, bi artxibo topatuko dituzue:

- Juan Illarramendiren irudi originalak. 20'11".
- Irudi horiek baliatuz osatu dugun dokumentala: 51'16".

NOAUA!ko bulegoan, **Lizardi** eta **Laurok** liburudendetan salgai.

Prezioa: 10 euro.

*NOAUAko bazkideek 8 eurotan eskura dezakete, baina soilik NOAUA!ko bulegoan.



Alkateari eta udaleko gizarte langileei babesa adierazteko erakunde adierazpena aho batez onartu zuten unea.

Babesa, erakunde adierazpenaren bidez

Usurbilgo gizarte langileak eta alkatea azkenaldi luzean, herritar baten aldetik jasaten ari diren "eraso eta irain etengabeen" aurrean, haiei guztiei babesa agertzeko adierazpen instituzionala onartu zuen udalbatzak azaroaren 28ko osoko bilkuran.

"Usurbilgo Udalbatza osatzen dugun hiru alderdi politikook honako adierazpena sustatzeko beharra sentitu dugu, azken hilabete luzeotan herriko alkateak eta gizarte langileek herritar baten aldetik jasaten ari diren eraso eta irain etengabengatik", dio hiru udal taldeek (EHBildu, EAJ eta PSE) babesturiko testuak.

Ekintza judizialei babesa

Bost puntuko adierazpenean zehar, batetik, "irmoki salatzen ditu herritar honek udal-langile jakin batzuen eta alkatearen aurka egindako eraso bidegabeak eta jasaten ari diren irainak, salaketan aipatzen direnak". Horrekin batera, "bere hurbiltasuna eta babesa helarazi nahi die udal langileei eta, bereziki, Agurtzane

Solaberrieta alkateari jasaten ari den jazarpenagatik".

Horren aurrean, "alkateari jazarpena, mehatxuak eta irainak" eragindako herritarren aurka "hasitako ekintza judizialak babesten ditu. Ekintza horiek beharrezkotzat jotzen dira erakundearen eta haren ordezkarien duintasuna babesteko, bai eta udalerrian ordena eta bizikidetzabaketsua berrezartzeko ere". Horren haritik, alkatea ahalmentzen du adierazpen horrek "legezko ekintza guztiak, penalak barne, egikaritzeko, eta horren emaitzaren berri" emateko udalbatzari. Erakunde adierazpen honek, bide batez, herritarrei galdegiten die, "errespetuzko eta duintasuneko ingurune bat eraikitzen laguntzeko eskatzea, edozein

jazarpen edo eraso mota baztertuz".

Auzitegira

Duela urtebete hasi zen guztia. Aipatu herritarra, "ordura arte bizi ziren etxebizitzaren kontratua amaitzearen ondorioz eta beste bizileku bat topatzeko zailtasunen aurrean, udalera jo zuen larrialdietarako etxebizitza bat eskatuz. Udaletik egin den kudeaketarekin kexu izan da hasieratik, eta

"ARARTEKOAK DEITORATU ETA ARBUIATU EGIN ZITUEN IRAINAK ETA MEHATXUAK ERABILTZEA"

oraindik ere bere horretan jarraitzen du". Ia urtebetez, "etengabeak izan dira, ondorioz, alkateak eta gizarte langileek jasan behar izan dituzten irainak, erasoak eta mehatxuak". Bide ezberdinetatik jaso dituzte kaltetuek. "Email bidez ia egunero" eta horrez gain, "alkatearen etxe inguruan ere kartelak eta pintadak maiz azaldu dira". Adierazpenaren arabera, "alkatearen eremu pribatuan ere sartu da, eta bere alaben aipamena etengabea izan da". Horrez gain, "Gizarte Zerbitzuen departamentuari su emango ziola mehatxu ere egin du inoiz telefono deietan, bai eta eraso egingo ziela mehatxu ere".

Testuinguru horretan, azalpenak sarritan eman eta bere jokabidea etetea galdegindio Udaletik herritar honi. Arartekoak ere Udalaren jarduna babestu eta aipatu herritarrek aurkezturiko kexa-espeditentea itxi zuen "oinarrizko gizarte-zerbitzuek eskatu ahal zaizkion eskuhartzeak egin zituztela, kexagileari dirulaguntzak emateko eta beste etxebizitza bat bilatzeko aholkularitza emateko". Kaltetuei elkartasuna adierazi zien. "Deitoratu eta arbuatu egin zituen irainak eta mehatxuak erabiltzea, horiek gertatzen diren esparrua edozein dela ere". Halere, aipatu herritarrek "bere jarrera oldarkorrean jarraitzen zuela ikusirik, alkateak epaitegian haren aurkako salaketa jartzea erabaki zuen", ezinbestean, "jazarpen publikoa geldiarazteko, eta, horrela, eskubide zibikoak gehiegikeriaz ez gauzatzea bermatzen da. Herritarren adierazpen askatasuna eta erakundeon jarduna kritikatzeko eta horien aurrean kalean haserre, protesta eta kexua azaltzea beharrezkoa eta zilegi bada ere, herritar horrek marra gorriak gainditu ditu". Abenduaren 3an deitu zuten alkatea deklaratzera.

Haurrentzako GABONETAKO EKINTZAK

usurbilkultura.eus

Abenduak 14

**GABONETAKO AZOKA ETA
EGUBERRITAKO ARGIAK PIZTEA
(Haurrentzako tailerrak)**

16:00 Santueneako Frontoian

Antolatzailea: Santuenea Elkarte.

Abenduak 15

**SABELHORTZ KAPITAINA ETA DIAMANTE
MAGIKOA FILMA**

17:00 Sutegin

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta
Ziortza Gazte Elkarte.

Abenduak 21

**SAN TOMAS EGUNA - TXISTORRA
BANAKETA (DJ Gorka Mendirekin)**

18:30 Santuenea 12an

Antolatzailea: Santuenea Elkarte.

Abenduak 23

**IRAKURKETA SOLASALDIA YOLANDA
ARRIETAREKIN**

11:30 Udal Liburutegian

Irakurketa solasaldia 11 urtez
gorakoentzat.

Antolatzailea: Sutegi Udal Liburutegia.

**OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN
ETORRERA AGINAGAN**

18:00 Eliza Zaharrea

Antolatzailea: Antxomolantxa

Abenduak 23, 27 eta 30

IRRISTAKETA IKASTAROA

11:00 - 13:00

15€ (SKEko bazkideek 5€)

santueneake@gmail.com

Antolatzailea: Santuenea Elkarte.

Abenduak 23 eta 27

**GAZTELEKUA: TXURI URDINERA
IRTEERAK**

Informazio gehiago:

gaztelekuausurbil@gmail.com /
688 813 853

Antolatzailea: Gaztelekua.

Abenduak 24

**OLENTZERO ETA MARI
DOMINGIREN ETORRERA**

Herrigunean (17:30 Kalezartik
abiatuta eta Santuenean 18:00)

Abenduak 28

**SASI GUZTIEN GAINETIK...
MAGIA GALA**

18:00 Sutegin

Antolatzaileak: Usurbilgo
Udala, herritarrekin elkarlanean.

Abenduak 31

**HURBILAGO SAN SILVESTRE
HERRI LASTERKETA**

17:00 Frontoian

Izen ematea: gertuago.eus-en,
abenduaren 15etik 30era.

Antolatzailea: Hurbilago
elkarte.

Urtarrilak 2, 3 eta 4

**GABONETAKO HAUR PARKEA,
KIROLDEGIAN**

11:00 - 13:00 eta 16:30 - 19:30

2-12 urte bitartekoentzat, doan.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Urtarrilak 5

ERREGEEN KABALKADA

11:00 Eskutitz tailerra eta
muralaren irekiera.

12:00 Postariaren etorrera eta
jolasak postariekin.

12:30 Postariari eskutitzak eman.

17:00 San Estebandik irteera.

19:30 Frontoian.

Antolatzailea: Ziortza Gazte
Elkarte.



Usurbilgo Udala



Euskararen Eguna, aldarrikapenarena eta festarena

Euskarari eskainitako asteko ekimen zikloa abenduaren 3ko nazioarteko egunarekin borobildu zuten. Jolasean edota kantuan, euskara plazaratu zuten herritarrek.

Geure hizkuntzari gorazarre egiteko asteari abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunarekin eman zitzaion amaiera Usurbilen. Aldarrikapen eta jaieguna izan zen. Udal zerbitzuentzat egutegian gorritz seinalaturiko eguna; udaletxea, Sutegi edota Potoxoen itxita izan ziren. Negu giro beteko asteartea gogotik girotu zuten, bestalde, herritar belaunaldi ezberdinek goize-

tik iluntzera. Eguneko lehen orduetan, eguneroko dinamikatik atera ziren Udarregi ikastolako LH ziklokoak plazara irten ziren jolastu eta abestera. HH eta DBH-koek ikastetxe barruan hainbat dinamika egiten ari ziren artean, 6-12 urte artekoak herri erdiguneko plazak hartu zituzten talde jolas hainbatetan parte hartzeko. Eguerdian euskara aldarrikatu eta hizkuntza be-



Euskarari kantuan gogo biziz, Udarregi ikastolako LH-ko ikasleak.

rean bizitzea aldarrikatu zuten euria tarteko, frontoian eskainitako emanaldian.

Kantu bazkaria

Gauza bera egin zuten, toki berean, Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoek ere. Hainbat herritarrekin batera, abestuz borobildu zuten Euskararen Eguna eta egunotako ekimenen

zikloa. Kantu taldea aipatuta, gogoan izan, amaitzeaz duen ikasturtea agurtzeko kantubazkaria antolatua duela iganderako, abenduaren 15erako 13:30etan Artzabalén. Bankako Menditarrak taldekoak gonbidatu dituzte hitzordu honetara. Otordurako izena abenduaren 10a baino lehen eman beharra zegoen.



Euskaratik eta euskaraz abestu zuten Udarregiko ikasleak.



Jolasean igaro zuten Euskararen Eguneko goiza Udarregiko LH-ko ikasleak.



Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoek ere bat egin zuten Euskararen Egunarekin.



Usurbilgo udal zerbitzuentzat jaieguna izan zen Euskararen Eguna.



Oria ibaiak hedadura hau zuen aste hasieran, Txikiardi eta Zubieta artean.



Urak handi astelehen goizean. Txokoalde parean.

Aurreko asteburuko euri-jasak ez zuen kalterik eragin

Asteburuko euri-jasen ondorioz, nabarmen hazi zen Oriako ur-emia aste hasieran.

Gogotik egin zuen euria asteburuan eta hori Oriak nabarmendu zuen gogotik. Oso

hazita zetorren ondoko argazkietan ikus dezakezuen moduan, aste hasieran. Izan ere,

larunbatz geroztik abisu horian ginen euriagatik. Igan-de eguerditik astelehen goizera alerta laranjaren eraginean izan ginen eta erriok nabaritu zuen.


Maila laranja heldzean

Gipuzkoa goialdetik biltzen joandakoarekin zetorren geure artera. Hilaren 9an, ertzetik gertuen zeuden erriberetan zertxobait barneratu zen Oria Santuenea eta Txokoalde artean. Zubietan ere irudi bera

jaso genuen. Usurbildik gertuen, Euskalmet meteorologia agentziak Lasarte-Orian duen estazioan bildutako datuen arabera, asteburuan maila horia gainditu zuen Oriak. Astelehen goizaldean maila laranja heldzean izan zen zenbait uneetan, baina iristear zela ur-emia gutxitzen hasi zen pixkanaka. Beste batzuetan gertatu izan ez den moduan, oraingoan bai; asteburuko euri-jasei bere ohiko bidetik eutsi die Oriak.



Urdaiaga eta Txokoalde artean erori zen zuhaitz hau.



Anerreka ingurumen elkarteak igorritako irudia.

Haize-bolada bortitzen arrastoa, begi-bistan

Haize-bolada bortitzak ere izan genituen asteburuan. Abisu horian izan ginen 100 kilometro ordutik gorako haize-bolada

arriskuagatik. Arrastoa utzi zuten; Urdaiaga eta Txokoalde artean jausitako zuhaitza duzue herritar baten ondoko irudian.

Beste isurketa baten irudia jaso dute Aranerrekan

Anerreka ingurumen elkarteak NOAUA-ra igorritako argazkia duzue albiste honi atxikia. Iragan abenduaren 4koa da, bes-

te isurketa baten argazkia. Irudian nabari den moduan, erreka zuen orban handi txuria agerikoa da.



Elkargunea anbulatorio ondoko zelaian kokatuko dela berri emateko, Elkargunekoen urte hasierako agerraldia.

Elkargunea eraikitzeke garaia

"Gero bat gaurdanik: Elkargunea eraikitzen" izeneko topaketak antolatu dituzte abenduaren 20tik 26ra, Elkargunea osatzen duten eragileek. Kantu-jira berezia, azoka, erakusketa, tailerrak... eskaintza oparoa iragarri dute.

"Elkargunea eraikitzeke unea heldu da!". Hala iragarri zuten sare sozialen bidez aste hasieran, bilgune honetako kide diren eragileek; Kulturguneak, Gaztelekuak, Ziortza gazte elkarteak eta Aztarrika gazte asanbladak. "Gero bat gaurdanik" aldarripean, jardunaldiak iragarri dituzte abenduaren 20tik 26ra. Bigarren eskuko truke azoka, kantu-jira berezia, Txirikordari lotutako asanblada, erakusketa Sutegin, oroimen historikoari lotutako bisita gidatua, sorkuntza tailerrak... Segidan dituzue osatu duten egitarau oparoari lotutako zehaztasunak.

Lankidetzaren oparoa

Nerabeen, gazteen eta kultur gileentzako, nor bere egitasmoak bideratzeko, lankidetzarako nahiz biltzeko espazio berri baten beharrak batu

zituena eragile guztiok iaz, eta ordutik, emankorra izan den lankidetzaren bidea jorratu dute. Urte hasieran, Udalarekin adostu zuten Elkargunea anbulatorio ondoko zelaian eraikitzea. Gero, otsaitetik udaberri amaierara arte, egitasmo hau diseinatzeko Elhuyarrek dinamizaturiko parte hartze prozesuan murgildu ziren.

"Gero bat gaurdanik: Elkargunea eraikitzen"

Abenduak 20, ostirala

- 18:00-21:00 Ziortzakoen San Tomas jaialdia.

Abenduak 23, astelehena

- 12:00 Usurbilgo Memoria: ibilbide gidatua (Usurbil 1936 elkarte) Mikel Laboa plazatik.
- 17:30-20:00 Aztarririk frontoian: Aztarrikaren bigarren eskuko truke-azoka. Bilketa:

abenduaren 19an eta 20an, 17:30-19:30, Sutegin.

- 18:00-20:00 Elkargunekoen eragileen erakusketa irekiera Sutegiko erakustaretoan.
- 20:00 Gabonetako topaketen irekiera ekitaldia Sutegiko aterpean.

Abenduak 24, asteartea

- Goizetik, baserritar jantziekin.
- 11:00 Talogintza ikastaroa Usurbilgo talogileekin frontoian.
- 11:30-14:00 Elkargunekoen eragileen erakusketa Sutegiko erakustaretoan.

BILTZEKO ESPAZIO BERRI BATEN BEHARRAK BATU DITU ERAGILE GUZTIAK

- 17:00 Aztarririk: Palestinaren aldeko kantujira frontoitik.

Abenduak 26, osteguna

- 11:30-14:00 Elkargunekoen eragileen erakusketa Sutegiko erakustaretoan.
- 17:00 Txirikorda: Usurbilgo lehen Etxebizitza Asanblada Herritarra (Txirikorda eta Aztarrika).
- 17:30 Sormen tailerra (Kulturgunea, Gaztelekuak, Ziortza): antzerkia (Jontxu Martinez) eta eskulangintza (EITI), Anuk eta Elene solasaldi musikatuak.
- Amaieran, merendola.

Antolatzaileak: Kulturgunea, Ziortza, Aztarrika, Gaztelekuak.

Zumartekoen urte amaierako hitzorduak

Musikaz blai eta kantu giroan agurtuko dute Zumarte Musika Eskolako kideek amaitzean dugun urtea. Lau hitzordu iragarri dituzte egunotarako:

Abenduak 13, ostirala

- 17:15 Piano ikasleen entzunaldia Zumarteko ganbaran.

Abenduak 17, asteartea

- 19:00 Zumarteko abesbatzen kontzertua Salbatore elizan.

Abenduak 18, asteazkena

- 10:00 Belaunaldiarteko gahonetako emanaldia Zumarteko ganbaran.

Abenduak 19, osteguna

- 18:00 Biolin taldekoen gabonetako entzunaldia Zumarteko ganbaran.

GURE
GARIA

GURE
OGIA

ORAIN
OGI
INTEGRALA
ere bai

EUSKAL
OGIA

GURE GARIA, GURE OGIA
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN



EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

USURBIL

LABE GOXO - Alperroburu, 1

hazi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

San Tomas azoka goiztiarrena, Usurbilgoa

Ate joka dugu aurtengo San Tomas azoka. Igande honetan ospatuko da eta jan-edanik ez da faltako; bertako sagardoa, taloak eta gaztain erreak dastatzeko aukera izango da.

Babarrun eta sagardo lehiaketaren sariketarako ere zuzenean biziko ditugu. Musika ere ez da faltako, ezta hainbat postu ere, osteratxoak egin eta erosketetarako.

San Tomas azokako antolaketan laguntzeko deia

Herrigintzak auzolana behar du, ezinbestean. Izan ere, bestela, urtean zehar izaten diren hainbat ekimen egitea ezinezkoa litzateke. NOAUA! Kultur Elkartea, San Tomas Azoka prestatzen ari da abenduaren 15erako, baina laguntza behar du.

NOAUA! kideak elkarrekin aritzeko eta egoteko hitzordua izaten da urteroko azoka hau. "Guretzako egun hau zuekin konpartitzea oso garrantzitsua da, elkarren berri izateko ba-

liagarria", aipatu kultur elkarrearen esanetan. Horregatik, "abenduaren 15ean ospatuko dugun azokan elkarrekin aritzea gustatuko litzaziguke".

Laguntzarako hitzordua jarri du kultur elkarteak, hilaren 15ean bertan, goizeko 8:30ean frontoian. Gonbita, beraz, egin du bilgune honek. "Bazkide berriak, hasieratik zaudetenak eta bazkide izateko gogoz zaudetenon laguntza eskertuko dugu azoka antolatzeko lanetan!! Gainera, elkarrekin ha maiketako goxo bat egin eta elkarrekin egoteko aukera ere baliatuko dugu goiza".

Animatzen zaretenok, kultur elkarte honek eskertuko luke "lanak banatu eta ondo antolatu ahal izateko" laguntza etor zaitezketela ziurtatzea aurrez, abenduaren 12a baino



Babarrun zein sagardo lehiaketetan parte hartzeko epea asteartean amaitu zen.

lehen, elkartea@noaua.eus helbidera idatzita. Bestela, deitu 943 360 321 telefono zenbakira edo etorri Bordaberri 3ko egoitzara.

Lehiaketetako izen-ematea, itxita

San Tomas azokarako babarrun zein sagardo lehiaketetan izena emateko epea abenduaren 10ean itxi zen.

Sagardo zein babarrun txapelketetako irabazle bakoitzak 150 euro eta txapela eskura-

tuko ditu. Txapeldunorde bakoitzak 90 euro eta kopa bat jaso du eta hirugarren sarituek 50na euro etxeratuko dituzte.

"SAN TOMAS AZOKAREN PRESTAKETA-LANAK GOIZEKO 8:30EAN HASIKO DIRA"

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2025eko egutegiaren banaketa

Foru Aldundia herriz herri banatzen ari da 2025erako diseinaturiko egutegia. Usurbilen, ostegun honetan, abenduaren 12an izango dira, 17:30-18:30 artean Mikel Laboa plazan. "Zatoz zurea jasotzera!" egin dute gonbita.

Foru Aldundiak berak eta Gipuzkoako Argazki Elkarteak sustaturiko lehiaketara aurkezturiko irudiekin osatu dute hurrengo urteko egutegia. "272 parte-hartzailek guztira 644 argazki aurkeztu zituzten, Gipuzkoako txoko eta leku ezberdinen esentzia harra-



644 argazki aurkeztu ziren egutegira.

patuz", aditzera eman duteenez. Aurten, Gipuzkoa izena estreinako dokumentu batean aipatu zeneko milagarren urtemuga oroitu nahi izan dute.

Lilatoian talde gisa parte hartzeko proposamena

Emakumeen lasterketa herriko Lilatoian talde gisa parte hartzeko proposamena egin du Emakumeon Etxeko talde sustatzaileak. Taldea osa daitekeen baloratzeke, parte hartu nahi luketen emakumeentzako izena emateko epe bat jarri dute, abenduaren 10etik 23ra, galdegegi bat beteta. Erantsi dugun QR kodearen bidez iritsi zaitezke galdegegiara.

2025ean, otsailaren 23an izango da Lilatoia. Dena den, gabonen ondoren entrenatzen hasi nahiko lukete. Bi talde egin daitezkeela proposatu dute:



Lilatoia korrika edo oinez egiteko, bakoitzari erosoan zaion moduan. Izena emateko epea horren arabera jarri duten arren, epe horretatik kanpo ere eman ahal izango da izena.



Dokumental batekin eta horri lotutako sei obra grafikorekin osatzen da June Baonzaren erakusketa. ARGAZKIA: ITZIAR BASTARRIKA

"Feminismoaren begirada txertatzen dut nire lanetan, feminista naizelako"

JUNE BAONZA DISEINATZAILEA ETA ILUSTRATZAILEA

"Ama eta asunak" lana aurkeztuko du June Baonza ilustratzaile eta diseinatzaile durangarrak ostegun honetan Emakumeon Etxean, eta horren inguruko erakusketa zabalduko du.

'Ama ta asunak' proiektuak amatasunaren ideala deseraiki nahi du. Zein formatu du lan honek?

Bi formatu ditu lan honek. Covid garaia pasata, udalak beka batzuk atera zituen artista sortzaileentzat eta ni obra grafikoko beketara aurkeztu nintzen. Obrak grabatua izan behar zuen, hori zen hasiera batean hartu behar zuen forma eta elkarrizketa

bidez egin behar nuen. Beraz, sei pertsona elkarrizketatu, eta horietatik abiatuta grabatuak eta obra grafikoa sortu nituen. Hala ere, interesgarria iruditu zitzaidan erakusketarako elkarrizketen euskarria ere izatea. Ikus-entzunezko euskarrietara ohituago gaude eta informazio hori errazago jasotzen dugu, normalean. Dokumental txiki bat da 38 minutukoa eta horri lotuta

dauden sei obra grafiko konzeptual, sei grabatu.

Sei bizi esperientzia, sei hau, sei elkarrizketa, sei obra grafi-

"AMATASUNAREN ESPERIENTZIA GAZI-GOZOA IZAN ZEN NIRETZAT"

ko, bideo bat eta instalazio bat biltzen dituen lana da.

Pertsona adina esperientzia egon daitezke, baina obra baterako hautaketa egin beharra dago. Neure inguru hurbilean aurkitu nituen protagonistak, nire amatasun esperientzia kontatu nahi nuen, baina nik zuzenean hitz egin gabe. Genero, arraza eta klase sozial berekoak dira pertsonak nitaz hitz egiten dutelako.

Zein hausnarketaren ondorio da?

Gai honi buruz hitz egiteko gogoia neukan 2010ean ama izan nintzenetik. Niretzat esperientzia gazi-goza izan zen, sentsazio askorekin, eta horri buruz hausnartzeko gogoia neukan. Amatasuna hau modura ulertuta eta ez derri-gorrezko esperientzia modura. Dokumentalean agertzen diren hiru emakume ama dira eta beste hirurak ez. Alabatasunetik eta ama izateko aukera begiratze horretatik sortu dut.

Feminismoaren alderdi anitzez aritu ohi zara.

Feminismoaren begirada txertatzen dut nire lanetan feminista naizelako. Feminista naizen aldetik, arlo horretan mugitzen den jendearen enkarguak egiten ditut gehienbat. Beste lan mota batzuk ere egiten ditut.

Aurtengo Durangoko azokan zure lanen bat egon da.

Azokan aurkeztu diren pare bat lanetan parte hartzeko aukera izan dut: Miren Amurizaren "Playback" liburuiko portada sortu dut Itziar Baztarrikarekin batera eta Iratxe Etxebarriaren '7.300 miligramo escitalopram' lana ilustratu dut.

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

TXAPELDUN



ARDANGELA

EGUNEKO MENUA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA

Muna Iurra 2, 943 49 88 83



"Helduekin batera irakurtzen diren ipuinak asko gustatzen zaizkie ume txikiei". 'Xurde' da ipuin horietako bat.

"Umeak oso erraz murgiltzen dira animalien ipuinetan"

AINARA AZPIAZU ADURIZ 'AXPI' MARRAZKILARIA

Aurreko asteko NOAUA!rekin batera, 'Xurde' izeneko ipuina banatu genuen. Beste ale bat nahi duena, NOAUA!ra hurbildu dadila jasotzera. Axpirekin batu gara eta Xurde basurde txikiaz eta bere lagunez luze zabal aritu gara hizketan.

Andatza inguruan bizi den kuadrilla bat aurkeztu zenigun due-la bi urte. 'Axarko' azeria izan zen 2022ko ipuineko protagonista nagusia. Iazko ipuineko ahots nagusia berriz, 'Azkonar' azkonarrarena izan zen. Aurtengoan, 'Xurde' basurde txikia izango da kuadrilla honen abentura berria gidatuko duena. Axarko eta Azkonar bezalaxe, bere ingurua ezagutu eta ezagutarazteko jakinmin handia du Xurdek, ezta? Bai, hiru pertsonaiek oso harreman estua dute bere inguruarekin. Tira, animaliak horrela bizi dira. Naturan bertan egin behar dute bizitokia, eta jatekoa ere bertan

bilatu behar dute. Bizirau-penari oso lotuta daudenez, inguruarekin harreman estuan irudikatu ditut.

Hala ere, bakoitzak bere habitat berezia du eta hori islatzen saiatu naiz. Usurbilgo paisaiako gune edo bizitoki ezberdinetan kokatu ditut. Xurde ibaiari begira jarri dut, nahiz eta ibaia ez den basurdearen berez-berezko habitata, ibai bazterretan ere ibiltzen da.

Ipuina idazterakoan, zer adineko irakurlea izan duzu gogoan? 5 eta 8 urte tartean dauden umeak edo gatzetxoak irudi-

katu ditut. Horrek ez du esan nahi 11 urteko bati gustatuko ez zaionik. Ume txikiei ere, helduekin batera irakurtzeko diren ipuinak asko gustatzen zaizkie.

Animaliak gainera, oso erakargarriak egiten zaizkie. Oso

"XURDE IPUINA IDAZTERAKOAN, 5 ETA 8 URTE ARTEKO HAURRAK IZAN DITUT BURUAN"

erraz sartzen dira animalien ipuinetan.

Gurasoekin irakurtzeko ipuinak dira hauek, jolas hori pizteko. Kasu honetan gainera, Usurbilgo jendeak izan dezake errioarekin lotutako istoriorik, eta gurasoek beren istorio propioekin osatu dezakete ipuinak azaltzen duena.

2022an, trilogiako lehen ipuina plazaratu zenuenean, "natura, bertako landaretza eta bertako fauna" jorratu nahiko zenituzkeela aipatu zenigun. Lehen bi ipuinetan ez bezala, honakoan errioa da ipuinaren kokalekua eta protagonista.

Ni hernaniarra naiz eta gure etxean, Donostiara baino, Goizuetara begira bizi izan gara. Eta errioiari begira beti. Gure bailara lotzen duena gainera, errioa da.

Kabienez urte batzuk egin nituen eta han ikasi nuen Usurbilen ere historikoki garrantzia handikoa izan dela errioa. Ontziolak ere bazirela Oriako arroan. Nik gehiago ezagutzen dut Urumeako artoa. Garai bateko autopistak eta garraiobideak errioiak ziren, funtsezkoak komunikaziorako.

Angulaz gain, amurrainak, ez-kailuak, platuxak edota lupiak marraztu dituzu ipuinean.

Anaia arrantzan aritutakoa da eta Aginagan kristoren lupiak zeudela esaten zidan. Arrantza eremua gaur egun beste egoera batean da baina baditu bere bereizgarriak, oso interesgarri egiten dutena errioa. Usurbilen egonda, oso egokia iruditzen zitzaidan hori jasotzea nolabait, nahiz eta nik oso modu xumean egin. Sakonago aztertu daiteke baina ibaia-aren garrantzia azpimarratu nahi nien umei.

Ala, ubera, polaina, eskifaia,... Batzuentzat akaso arrotzak diren hitzak dira. Horiek denak ipuineri ekartzea, hiztegi bat, jarduera bat, kultura bat biziberritzeko modua ere bada, ezta?



"Gure basoetan eta errioetan, ikusten ez dugun hori guztia hor dagoela pentsatzeak zirrara sortzen dit".

→ Garai bateko jendearekin hitz egiten baduzu, dena dago lotuta: lanbideak, lan-tresnak, natura, euskara... Dena oso modu zehatzean esana zegoen eta dena zen mundu ikuskera baten parte. Hizkuntza, biologia, errealitate soziala... Den-denaren isla.

Baina noski, ez da gauza bera txalupa edo ala esatea. Kabienean ikasi nuen Aginagan ala deitzen zitzaiola anguletarako erabiltzen den txalupari. Nik txanela neukan aditua Urumea partean, eta hala ere, ez dut uste gauza berbera direnik.

Ipuin berri honetan, Xurde ala gainean ikusiko duzue halako batean, makila eskue-tan duela. Nik makila idatzi nuen ipuinaren jatorrizko bertsioan. NOAUA!ko zuzentzaileak (Joxe Jabier Furundarenak) jarri dio berezko izena alan erabiltzen den makil horri: polaina. Euskarak baditu halako altxorrek, tokian tokiko jardueri lotuta dauden izenak, eta oso aberatsa iruditzen zait. Usurbildar irakurlearen tokian jarrita, ederra iruditzen zait ipuin honi esker polaina hitza deskubritu ahal izatea.

Basoan bezala, ibaien inguruan bada gero eta urrunago geratzen ari zaigun fauna eta flora. Ur azpian ere izaki zirrargarriak bizi direla deskubrituko dute ipuineko protagonistek. Hori ere bazen zure helburua? Errioa eta erriorearen inguruko jarduera hori balioan jarri eta aldarrikatzea?

Nik etxean jaso dut hori, aitonarekin batez ere. Asko ikusi eta bizi izan dut erriotako errealitatea, eta erriotako bazterretakoak.

Umetan, askoz errazagoa zen giro horretan "alfabetatua" zen jendea topatzea, baina jakitun naiz jende asko horren bizkar bizi dena. Gaur egungo umeen artean adibidez, askoz ohikoa da jirafaren aipamena entzutea, basurdearena baino.

Harrigarria egiten zaizu?

"KABIENEN EGIN NITUEN URTE BATZUK ETA HAN IKASI NUEN ZER GARRANTZIA DUEN ERRIOAK HEMEN"

Arrotza egiten zait. Ez diot zentzu handirik ikusten. Ondo dago jirafa batekin liluratzea baina hemen bertan ere baditugu liluragarriak diren animalia asko.

Gure basoetan eta gure errioetan, ikusten ez dugun hori guztia hor dagoela pentsatzeak niri zirrara sortzen dit eta nahiko nuke umeak ere sentsazio horrekin lotzea. Izokin bat itsasora joan eta buelta egiten duela gero, jaio den erriora. Edo angula Mexioko aldean jaiotzen dela eta Atlantikoa zeharkatzen duela. Baditugu 'flipatzekoak' diren animaliak eta bertatik bertara gainera. Hori ere ezagutzea polita litzateke. Horren aldeko aldarri moduko bat dira Xurde, Azkonar eta Axarkoren inguruan osatu ditudan ipuinak.

"GURE INGURUAN ERE BADITUGU 'FLIPATZEKOAK' DIREN ANIMALIAK, ETA BERTATIK BERTARA GAINERA"

"Aukera polita eskaini dit NOAUA!k"

NOAUA, duela sei urte hasi ginen Euskararen Egunaren bueltan euskarazko ipuin bat argitaratzen. Lehen hiru ipuinak Ixabel Agirresarobek idatzi eta Mattinek marraztu zituzten. Azken hiru urteotan, Axpik osatu ditu ipuinak, hitzez eta irudiz.

Horrelako enkar-guak jasotzen dituela aitortu digu Axpik, "baina gauza solteagoak izan ohi dira. NOAUA!k hiru ipuin idazteko enkargua egin zidanean, ideia-ri beste sakontasun bat emateko aukera eman zidan. Ez dira horrelako asko jasotzen, eta niretzat aukera polita izan da".

Zer gertatuko da orain Axarko, Azkonar eta Xurderekin? Datorren urtean, beste egile bat izango baita ipuinaren ardura bere gain hartuko duena. "Nahiko nuke beraiekin lanean segi", azaldu digu. "Ez ditut ahaztu nahi eta ari naiz zerbaitetan baina horrek zer nolako emaitza ekarriko duen, ez dago soilik nire esku. Baina poz handia emango lida-ke".



'Xurde' ipuinaren azala.



Axier Aranguren Eliza Zaharreen jarrita daukan oihalaren aurrean, txiribueletaka hasteko puntuan.

"Drag mundua gustuko dut. Fantasia horrek asko erakartzen nau"

AXI ARANGUREN ZIRKUKO DIZIPLINETAN ARITZEN DA

Aginagarra oihalean ibiltzen da, *pole dance* eta uztai hegalarian ere badu esperientzia eta dantzan ere aritzen da. Azaroaren 30ean Eliza Zaharreen egindako galan, drag ikuskizun bat oholtzaratu zuen Danna Lux ezizenarekin. Horra artistak kontatu diguna.

Nolatan erabaki zenuen oihalekin akrobaziak egiten hastea?

2018an Kataluniara joan nintzen, Bicera SICUE programa-ekin ikasketak egitera unibertsitatera. 6 hilabete egin nituen bertan lagun batekin pisukide. Nerea da bera, nafarra, eta HHko ikasketak egiten ari zen. Hark eskola bat bilatu nahi zuen oihalekin ibiltzeko eta harekin eman nuen izena eskola batean. Nik oihalen kontua zer zen ere ez nekien, eta hasieran ikaragarri frustratzen ninduen Nereari figura guztiak ondo ateratzen zitzaizkiola ikusita eta niri batere ez. Hark lehenagotik bazekien oihalekin ibiltzen, Eskoriatzan ikasketak egitean

han praktikatzen zuelako kirola. Nik, ordea, ez nuen lehenago probatu. Oihalean gora igotzen ikastea ere izugarri kostatu zitzaidan eta oso makala sentitzen nintzen. Behin etxera itzulita, 2018ko ekainean, oihalen kontua alde batera utzi nuen. 2020ko azaroan hartu nuen berriro Zirkuolan, Adunan. Orduetik berriro gelditu gabe ibili naiz aurtengo otsailera arte edo.

Oraindik entrenatzen duzu?

Otsailera arte Zirkuolara joaten nintzen entrenatzera, eta Aginagan haurrei joan zen ikasturtean klaseak ematen nizkien. Astero elkartzen ginen asteazkenetan Eliza Zaharreen.

4-7 urteko 7 bat ume animatu ziren parte hartzera. Irailean ere ikastarotxoak egin genuen, baina frontoian.

Neska gehiago ibiltzen dira, ezta?

Ohitura gehiago dago neskak ibiltzeko honetan. Ni ibili naizen eskoletan beti egon izan dira askoz neska gehiago. Nor-

"NORMALEAN, HALAKO LEKUETAN PARE BAT MUTIL IZATEN GARA, EDO HIRU, ASKO JOTA"

malean pare bat mutil izaten gara, edo hiru bat asko jota. Ez dakit zein den horren arrazoia, baina askotan pentsatu izan dut oihalean bilduta txiribueletaka ibiltzean sortzen diren atximurkek zerikusia izan dezaketela. Genitaletan atximurkak egitea ohikoa da, eta neskak zentzu horretan gutxiago sufritzen dute.

Antzeko diziiplina gehiago egin dituzu?

Madriilen Antzerki Musikala ikasi nuen eta bertan *pole dance* egiten nuen, uztaiarekin ibiltzen nintzen eta bertikalean pinoak egiten genituen; kabareta eta estiloko kontuak egiten genituen. Asko aldatzen da aireko diziplinak egitetik lurreko diziplanetara. Ez nintzen oso trebea horiek.

Jendeak halako diziplinak zirkuarekin lotuko ditu edo sexy izatearekin.

Kabaretarekin lotuta dauden kontu horiek "destape" kontzeptu horri lotzen dizkietela esango nuke. Oso diziiplina artistikoak dira, baina begiradaren arabera iruditzen zait asko aldatzen dela irakurketa ere. Posible da ikuskizun batean bi kontzeptuak nahastea eta alde artistiko hori "destape" horrekin fusionatzea. Niri gustatzen zait ikuskizunei ahalduntze kutsu hori ematea eta eskemak apurtzea genero ikuspegitik.

Eliza Zaharreen ikusi zaitugu. Takoia eta ile luzea jarri zenituen. Pertsonaia bat egiten duzu?

Eskemak apurtzeko asmo horretatik sortzen dut: gizon batek gona motza, ilea edo ileordea janztea ondo dago. Uste dut beste begirada bat eman behar zaiola. Herri txikietan hori ez da asko ikusten oraindik. Ni, adibidez, ez naiz auzartzen kalera gona motzarekin ateratzera, baina ikuskizuntarako oso ona iruditzen zait erakusleho modura erabiltzea mezu hori emateko. Drag mundu hori ere asko gustatzen zait,



Mendian, Ulia inguruan, Axier Aranguren zuhaitz artean akrobaziak egiten oihalean.

fantasia horrek asko erakartzen nau. Horri lotuta, pertsona bat sortzen ari naiz: Danna Lux. Eliza Zaharrear duela bi aste egindako galan jarri nuen lehen hazitxo horretatik bidea ireki nahi dut eta gehiago ikasi.

Nola uste duzu jasotzen duela jendeak?

Bakoitzaren balioen arabera, ikusitakoa, bizitakoa... bakoitzak bere testuinguru du. Denetarikoa pertsonak daude iruditzen zait. Beste drag batzuekin hitz egin dut eta haiek nola hasi ziren jakinda, antzeko pausoak ematea da asmoa. Momentuz instagrameko kontu bat sortu dut @danna.lux1 izenarekin eta ikusiko dut nola jarraitu. Jendearentzat bitxia izan daitekeela ulertzen dut, baina ohi-tzea da. Hausnarketarako bide ematen duela iruditzen zait, eta aurreiritziak badituzte, zergatik dituzten halakoak pentsatzera animatzen ditut.

Halako ikuskizunak badaude hemen inguruan?

Nerearekin hitz egin dut eta biok fusionatzea da asmoa eta ikuskizun bat sortzea eskemak apurtzeko; kabaret estilokoa. Ona izango litzateke herrietan ikuskizun hauek egiteko au-

keraz izatea eta zabaltzeko aukera izatea. Nahiko zaila iruditzen zait herrietatik gonbidapenak jasotzea, baina mugitu egin beharko dugu halako ikuskizunak normalizatzeko eta jendearen atentzioa deitzeko. Edozein espaziotan ere ez du balio halako ikuskizunak egiteko, oihalak edo barra bat jartzeko altuera behar baita.

Ikuskizun bat sortzeko asmoa duzu, baina orain ez zara entrenatzen ari.

Zirku ikuskizuna sortzea pentsatu nuenean, dantzak ere pisu handia behar duela iruditu zitzaidan. Takoiekin dantza egiten ikasteko klaseak hartzen ditut Donostian eta dantza moderno ere egiten dut. Dantzak asko betetzen nau, eta bide horretatik jarraitu nahi nuke. Antzerkiak ere

atentzioa ematen dit, umoreak, baina asko ikasi beharko nuke ikuskizunetan txertatu ahal izateko. Oihalak baztertuta dauzkat, baina sortu nahi dudana ikuskizunerako uztaia edo pole dance-ko barra egokiagoak dira. Illeordearekin eta arroparekin mugitzeko errazagoak dira diziplina horiek.

Horretatik bizitzea ez da posible. Zertan ari zara lanean?

Irakaslea naiz eta ordezko zereendetan nago beste asko bezala. Deitzen didatenean ordezkapenak egiten ditut, eta oposaketak prestatzen ari naiz 2026rako akademia batean. Bestelakoan, sagardotegian ibiltzen naiz zerbitzari noizean behin. Irakasle bizi, eta ikuskizunak egin nahi nituzke hobby modura. Nahiago dut ikuskizuna; gehiago betetzen nau, baina zaila da horretatik bizitzea.

"GUSTATZEN ZAIT IKUSKIZUNETAN AHALDUNTZEA ETA ESKEMAK APURTZEA GENERO IKUSPEGITIK"

"DRAG MUNDUA ASKO GUSTATZEN ZAIT ETA PERTSONAIA BAT SORTZEN ARI NAIZ: DANNA LUX"



Axier Aranguren.

Laburrean

Zenbaki bat:
5.

Kolore bat:
Arrosa.

Miresten duzun artista bat:
Lady Gaga.

Zirku bat hauta ezazu:
Gure Zirkua edo Zirkuola, balio euskaldunak dituzte.

Ikusi duzun azken pelikula edo telesaila:
CSI Miami.

Liburu bat aholkatuko diguzu?
Ez dut irakurtzen.

Zein da zure abeslaririk gogokoena?
Judas, Lady Gagarena.

Zein da gehien jarraitzen duzu sare soziala?
Instagram.

Usurbilgo txoko bat aukera ezazu.
Errio inguru eta gure txoko naturalak.

Santixabelak ala Sagardo Eguna?
Sagardo Eguna.

Oporretarako toki bat.
Thailandia, Brasil edo Hawaiira joatea gus-tatuko litzaidake.

Azoka girotuarekin gabonetan murgilduko da Santuenea

Gabon giro betean sartuko da Santuenea Kultur Elkartearen larunbat honetan. Gabonetako azoka eta San Tomas azokarekin batera, irristaketa ikastarobat iragarri dute.

Abenduak 14, larunbata

- 16:00-20:00 Gabonetako azoka eta eguberrietako argiak piztea.
- Eskulanen eta artisau-produktuen salmenta eta haurrentzako tailerrak frontoian.
- Nuria Cullak girotuko du azoka.

Abenduak 21, larunbata

- 18:30 San Tomas Eguna, txistorra banaketa.
- Santuenea Kultur Elkarteko bazkideen artean otarren zozketa eta umeen artean txerri-txoaren zozketa Santuenea 12an.

- DJ Gorka Mendik girotuko du San Tomas eguna.

Abenduak 23, 27, 30

- 11:00-13:00 Irriaketa ikastaroa frontoian eta eskubaloi pistan. Beharrezko materiala: kaskoa, babesgarriak (esku-mutur eta ukalondoetarako eta betaurrekoak) eta patinak.
- Prezioak: haur eta gaztetxoek 15 euro (Santuenea Kultur Elkarteko bazkideek 5 euro) eta 25 euro 18 urtetik gorakoek (10 euro Santuenea Kultur Elkarteko bazkideek).
- Informazio gehiago jasotzeko eta izen-ematea: 621 095 644 /santueneake@gmail.com

Abenduak 24, asteartea

18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera.

Antolatzailea: Santuenea KE.

'Errio' dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Aginagako Eliza Zaharrean

Oria ibaiko arroan burdingintza eta ontzigintzari lotutako jarduera izugarria garatu zen Erdi Aroan. Historialariek Rhin edo Tamesis ibaiek izandakoaren pare jartzen dute.

Dena den, desberdintasunak handiak dira: Rotterdam hirian eta inguruetan bi milioi pasatxo pertsona bizi dira; Londresen zortzi milioi inguru. Aginaga eta Orion 6.000 biztanle pasatxo. "Nolatan lortu zen herri txiki baten bueltan horrelako jarduera ekonomiko esanguratsua garatzea? Zeintzuk izan ziren hori posible egin zuten gakoak? Zer altxor ezkutatzen ditu Oria ibaia?..." Galdera hauen jira-birako 'Errio' dokumentala ondu dute Ibon Gaztañazpik eta Nagore Urdanpilletak. Abenduaren 22an eskainiko dute 17:30ean Aginagako Eliza Zaharrean.



Irudian, Orioko proiektzioa. Hilaren 22an eskainiko dute Aginagan. JABIER ZABALETA

Segidan, bi egileekin eta Xabier Agote, Lurdes Odriozola eta Xabier Alberdi historialariek solasaldia egingo da Aginaga Eliza Zaharrean, Antxomolantxak eta NOAA!k lankidetzan antolatutako ekitaldian.

Gonbidapenak, eskuragarri

Ekitaldirako gonbidapenak doan eskuratu ahalko dira usurbilkultura.eus plataforman edo NOAA!K.E.-ren egoitzan.

KzGuneako 2025eko lehen ikastaroak iragarri dituzte

Arratsalde zabalduko dute Usurbilgo KzGunea abenduan, 16:00-20:00 artean. Urte amaierako oporraldia tarteko, abenduaren 24tik urtarrilaren 7ra arte itxita egongo da gero. Urtarrilaren 7tik aurrerako ikastaro eskaintzari buruzko informazioa aurreratu dute dagoeneko.

Hemen, 2025eko lehen asteetarako iragarritako ikastaroen berri:

Urtarrilak 7-20

- Orduetgia: 9:00-11:00.
- Ikastaroa: "Oinarrizko Internet. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi".

Urtarrilak 21

- Orduetgia: 9:00-11:00.
- Ikastaroa: "Google Translate. Testuak eta web orriak itzuli".



Urtarrilean goizez zabalduko dute.

Urtarrilak 22-24

- Orduetgia: 9:00-11:00
- Ikastaroa: "Zure bidaia planifikatu".

Urtarrilak 27-31

- Orduetgia: 9:00-11:00.
- Ikastaroa: "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

Informazio gehiagorako:

Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

2025eko Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proban izena emateko aukera

Datorren urteko lehen kirol hitzordu nagusietakoa dena prestatzen hasiak dira jada. Zabalik da 2025eko Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako izen-ematea. Urtarrilaren 26rako antolatu dute. Ohi bezala, parte hartzaileak goizeko 9:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik bizikleta gainean Andatzako itzulia egitera. Antolatzaileek oroitarazi moduan, ekimen hau "zeharkaldi ez lehiakorra da. Bere helburu bakarra partaideek Andatza mendiaz eta ezaugarritzen gaituen giro ederraz disfrutatzea da".

Iaz bezala, aurten ere parte hartzaileek bi ibilbide izango dituzte aukeran: "bat luzeagoa eta teknikoagoa eta bestea laburragoa eta denek disfrutatzeko modukoa". Zeharkaldi horretan zehar,

"anoa gune handi bat egongo da eta amaieran, frontoian beste bat". Antolatzaileek argitu dutenez, bestalde, bizikleta elektrikoarekin parte hartu ahalko da.

Txalekoa, doan

Izen-emateari dagokionean, aipatu moduan, inskripzio epealdia zabalik da eta hala segiko du urtarrilaren 23ko goizeko 9:30ak arte, 30 euroren truke kronoak.com atarian. Izena ematen dutenek txaleko bat jasoko dute opari, baina adi; abenduaren 16a baino lehen jakinarazi beharko dute zein den bere neurria. "Handik aurrera izena ematen dutenek ere izango dute txalekoa, baina neurria dortsala jasotzerakoan aukeratu beharko dute, momentu horretan gelditzen diren neurrien artean".

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase par-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tikullarrak emateko. Ikasurte osorako konpromisoa: 647 742 588.

Andatza tabernan sukaldari bila gaitza: 627 841 927

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrik emateko. Telefono zenbakia: 647742588

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka

zaintza lanak edo garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. Interesatuak deitu hona: 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. Telefono zenbakia: 628 459 625

BESTELAKOAK

Ibilgailurako Reracro markako Zero.1 Bi haur aulki dauzkat salgai. 5 urte arte erabilgarriak, eta egoera onean. 125 euro bakoitzak. Harremanetarako: 653717186.

Zilarrezko lepoko bat eguzkilore berde batekin galdu nuen abenduaren 1ean, Usurbilgo erdigunean. Aurkitu baduzu eskertuko nizuke deitzea. Harremanetarako: 625701616

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 12	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 13	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 14	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 15	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astelehena, 16	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astearte, 17	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Asteazkena, 18	DE ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Osteguna, 19	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 20	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 21	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 22	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe I I Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

HILDAKOAK



Floripe Hernandez Martin
Abenduaren 5ean hil zen, 88 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Eskubaloia Oiardon

Abenduak 14, larunbata

- 12:30 Kadete neskek:
- Cortes Usurbil KE
- MEK Eibar Eskubaloia B
- 17:30 Kadete mutilak:
- Usurbil KE B-Leizaran Horia
- 19:30 Senior mutilak:
- Saizar Usurbil K.E.
- Lau Bide jatetxea Legazpi

Abenduak 15, igandea

- 11:30 Infantil neskek:
- Usurbil KE-Ordizia Enirio

Futbol partidak

Haranen

Abenduak 14, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak:
- Usurbil F.T. "B"-Kostkas C.D.
- 11:30 Kadete neskek:
- Usurbil F.T.-Arrupe Chaminade
- 16:00 Ohorezko jubenilak:
- Usurbil F.T.-Orioko F.T.
- 18:00 Gorengoen neskek:
- Usurbil F.T.-Goierrri Gorri F.K. "B"

Abenduak 15, igandea

- 10:00 Infantil mutilak:

Usurbil F.T. "C"-Euskalduna S.D.

- 11:30 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Beti Ona C.D. "B"

- 16:00 Jubenilak:

Usurbil F.T. "B"-Urnietta K.E. "C"

- 18:00 Erregionalak:

Usurbil F.T. "B"-Euskalduna S.D.

Haranetik kanpo

Abenduak 14, larunbata

09:00 Infantil txiki, Villabonan:
Billabona K.E.-Usurbil F.T.

- 10:30 Infantil neskek, Villabonan:

Aiztondo "B"-Usurbil F.T. "B"

- 14:00 Infantil neskek, Donostian:

Antiguoko K.E.-Usurbil F.T.

- 18:20 Gorengoen mutilak, Miche-

lin: Ostadar S.K.T.-Usurbil F.T.

Abenduak 15, igandea

- 12:00 Infantil mutilak, Eibarren:
- Eibartarrak F.T.-Usurbil F.T.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 12

KALEZAR Emakumeon Etxea: "Ama ta asunak" erakusketa

Irekiera eta egilearekin, June Baonza Pagaldarekin solasaldia. Bisita-orduak: astelehen, asteazken eta ostiraletan: 10:00-13:00. Astearte eta ostegunetan: 10:00-13:00 / 17:00-20:00.

OSTIRALA 13

TXOKOALDE Sendabelar ikastaroa

18:00 Txokoargin.

USURBIL "Etxe bat, norberarena" emanaldia

Yolanda Arrieta eta Peru Galbeteren eskutik. 19:00 Sutegin.

LARUNBATA 14

TXOKOALDE Errege opila egiteko ikastaroa

10:00 Txokoargi elkartean.

SANTUENEA Gabonetako azoka

16:00-20:00 Santueneko frontoian.

IGANDEA 15

USURBIL San Tomas azoka

Goiz partean, frontoian.

USURBIL Kantu-bazkaria Artzabalen

13:30 Artzabal jatetxean.



Igande honetan, 'Sabelhorts kapitaina eta diamante magikoa' Sutegin ikusgai.

Haurrentzako film proiektzioa

Negu parterako Usurbilgo Udalak eta Ziertza Gazte Elkartek antolatutako zinema zikloaren baitan, 'Sabelhorts kapitaina eta diamante magikoa' filma eskainiko dute igande honetan, hilak 15, 17:00etatik aurrera Sutegin.

• Sinopsia: "Sabelhorts kapitainak, itxuraz munduko piratarik anker eta beldurgarriena, bere ontzia urre eta bitxiz bete nahi du. Pinky gazteak,

aldiz, bizimodu lasaia du helburu, eta, Veronicak, haren lagunik onenak, abenturak ditu amets. Ezustean, baina, Marco txikia da diamantearekin ihes egiten duena, eta konturatu orduko, denak ere diamante magikoa lortzeko lasterketa arriskutsu batean murgilduko dira".

• Sarrerak: 3'20 eurotan eskuratu daitezke usurbilkultura.eus plataforman.

'Etxe bat, norberarena' ikuskizuna

Yolanda Arrieta idazleak badu izen bereko liburu bat eta, idatzi hori abiapuntu harturik, zuzeneko ikuskizun bat prestatu du Peru Galbete musikariarekin batera. Ostiral honetan, arratsaldeko 19:00etan, Sutegi udal liburutegian izango dira biak. Solasaldi poetiko musikatuan parte hartzeko ez da sarrerarik erosi behar.

Ikastaroak Txokoaldeko Txokoargin

Abenduak 13, ostirala
18:00-20:00 Senda-belar ikastaroa Leire Lazkanorekin: "Aurpegiko kremak". Oharrak: gehienez 12 lagunentzako tokia. Toaila txikia eraman. Prezioa: 10 euro.

Abenduak 14, larunbata
10:00 Errege opila egiteko ikastaroa Idoia Artuzamunorekin. Oharrak: gehienez 12 lagunentzako tokia. Prezioa: 10 euro.

Izen-ematea:
619 591 849 (Arratsaldez 16:00-18:00).

Sortalderen hitzaldia

Abenduak 17, asteartea
• 18:30 "Energiaren erabilera eta kontsumo jasangarria. Ze efizientzia neurri hartu ditzakegu gure etxe, negozio eta abarretan?".
• Hizlaria: Aitor Ossa (Goienar).
• Non: Potxoenean.

ANDATZA TABERNA

EGUNeko MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK



8:00-20:30 Astelehenerik - Asteazkenara
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL Tel 943 73 20 27

**ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA**

• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluk
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

TXIRIBOGA

TABERNA

Ondo pasa
Gabonetan!

GABONETARAKO ESKARI BEREZIAK PRESTATZEN DITUGU!

- Arrai zopa · Txipiroiez betetako pikilo piperrak
- Txipiroiak (pelaio erara)
- Kroketak (urdaiazpiko eta onddoenak)
- Legatza saltsa berdean · Bakaioa (bizkaitar erara)
- Txekor masailak · Arkumea saltsan
- Etxeko Foie "Mi cuit-a"

eta berezitasun gehiago!!! galdeiguzu eta egin zure eskaera!!!

24 eta 25erako eskaerak 15erako beranduenez eta 31 eta 1erako eskaerak 22rako beranduenez

943 21 88 40 IRAZU KALEA 6, USURBIL



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 www.goieko.com

gabonetako otarra

650
USURBIL
bizi

Eraman herriko
produktuz
betetako oterra.
Ez galdu aukera!

Erosi herrikoa,
bertatik bertara.
**Eta parte hartu
otarraren zozketan!**

Txartelak eskuratzeko tartea:
ABENDUAK 2-28

Sari banaketa
frontoian izango da,
ABENDUAREN 29an

650usurbilbizi.eus

100
otar
zozketatuko
ditugu!



Zozketa abenduaren 28an egingo da.